

|                                                    |                                                                                                                         |
|----------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Espediente Zk. / N° Expediente:</b>             | <b>SUBPCU/2025/3</b>                                                                                                    |
| <b>Unitate arduraduna /</b><br>Unidad responsable: | KULTURA<br>CULTURA                                                                                                      |
| <b>Prozedura / Procedimiento:</b>                  | Kultura Politikako eta Euskarako diru-laguntzen deialdia<br>Convocatoria de subvenciones de Política Cultural y Euskera |

**GAIA: KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA  
ARLOAREN UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEKO  
DEIALDIA.**

Ikusi da KULTURA(a)ren Ataleko buruak emandako ebazpen-proposamena, erreferentziako espedienteari buruzkoa, eta honela dio, hitzez hitz:

**Kultura-politika eta Euskara Arloko ordezkariak Euskara arloko dirulaguntzetan eskabideak aurkezteko epeak ezartzeko proposamenaren gaineko txostena aurkeztu dio Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria, Jaiak eta Kirola Batzorde Informatiboari.**

**Beraz, gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeari jakinarazi zaio.**

**Euskara Ataleko buruak ondoko txostena egin du:**

**Alkateak 2025eko martxoaren 3an onartu du Kultura-politika eta Euskara Arloaren Udal Dirulaguntzak emateko Deialdia (SUBPCU/2025/3).**

**Deialdiaren 3. artikuluan, dirulaguntzak aurkezteko epeak gainean hauxe xedatzen du Udalak: "Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, deialdian beste eperik adierazi ezean."**

**Euskara Ataleko dirulaguntzek epe bereziak dituzte eskaera aurkezteko, dirulaguntza eskaera egin orduko diruz lagunduko den jardura eginda egon behar delako. Epe berezi horiek eranskinetan ezarri behar izango ziren, baina ez ditugu zehaztu. Hortaz, akatsa egon da eranskinetako testuan, eskaerak aurkezteko epea jartzen diren ataletan, eta akats**

**ASUNTO: CONVOCATORIA PARA LA  
CONCESIÓN DE SUBVENCIONES MUNICIPALES  
DEL ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA**

Vista la propuesta de resolución emitida por el/la Jefe/a del Departamento de CULTURA, recaída en el expediente de referencia, que copiada dice:

La Delegada del Área de Política Cultural y Euskera ha presentado a la Comisión Informativa de Cultura, Euskera, Educación, Juventud, Fiestas y Deportes el informe que recoge la propuesta de plazos de presentación de solicitudes en las subvenciones del Área de Euskera.

Por tanto, la Comisión competente por razón de materia ha sido informada de la propuesta referida.

*La Jefa de la Sección de Euskera emite el siguiente Informe:*

*El Alcalde ha aprobado el 3 de marzo de 2025 la Convocatoria de Subvenciones Municipales del Área de Política Cultural y Euskera (SUBPCU/2025/3).*

*El artículo 3 de la convocatoria establece, en relación con el plazo de presentación de subvenciones lo siguiente: "El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, salvo que en la convocatoria se señale otro plazo."*

*Las subvenciones del Área de Euskera disponen de plazos especiales para la presentación de la solicitud, ya que la actividad a subvencionar debe estar realizada en el momento de realizar la solicitud de la subvención. Estos plazos especiales deberían haberse establecido en los anexos, pero no se han concretado. Se ha producido un error en el texto de los anexos que recoge el plazo de presentación de solicitudes que*

hori zuzendu behar dugu.  
 Horretarako, Euskara ataleko dirulaguntzetako eranskinetan honako epe hauek ezartzea proposatzen dut:

debemos corregir.  
 Para ello, propongo que en los anexos de las subvenciones del apartado Euskera se establezcan los siguientes plazos:

|                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ASTIALDIKO MONITORE/ZUZENDARIAK</b><br>Monitores y Monitoras y Directores y Directoras de tiempo libre                             | <b>Urriaren 31ra arte</b> / Hasta el 31 octubre                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUAK</b><br>Establecimientos hosteleros y comerciales<br><b>ELKARTEAK</b><br>Asociaciones | <b>2024ko urriaren 1etik 2025eko ekainaren 15era bitartean egindako jardueretarako:</b><br>Actividades realizadas entre el 1 de octubre del 2024 y el 15 de junio del 2025<br><b>Ekainaren 27ra arte</b><br>Hasta el 27 de junio     | <b>2025eko ekainaren 1etik urriaren 31ra bitartean egindako jardueretarako:</b><br>Actividades realizadas entre el 1 de junio del 2025 y el 31 de octubre del 2025:<br><b>Uztailaren 1etik azaroaren 7ra</b><br>Del 1 de julio al 7 de noviembre                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>EUSKARAREN EGUNA</b>                                                                                                               | <b>Urriaren 23tik - Azaroaren 7ra</b> / Del 23 de octubre al 7 de noviembre                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>GIDABAIMENAK EUSKARAZ</b><br>Carnet de conducir en euskera                                                                         | <b>Urriaren 31ra arte</b> / Hasta el 31 octubre                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>EUSKARA IKASTAROAK</b><br>Cursos de euskera                                                                                        | <b>2024ko urriaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako:</b><br>Para los cursos realizados entre el 1 de octubre del 2024 y el 30 de junio de 2025:<br><b>Uztailaren 7ra arte</b><br>Hasta el 7 de julio | <b>2025eko udako ikastaroetarako (uztaila, abuztua, iraila) eta 2024ko urriaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean egindakoetarako, betiere, ez badute lehen aldian eskabidea aurkeztu:</b><br>Para los cursos de verano del 2025 (julio, agosto, septiembre) y los realizados entre el 1 de octubre de 2024 y el 30 de junio de 2025, siempre y cuando no hayan presentado la solicitud en el primer turno:<br><b>Urriaren 10era arte</b><br>Hasta el 10 de octubre |

Gai hau Alkatetzaren eskumenekoa da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua arabera, zure irizpenerako, honako hau

Siendo el conocimiento del presente asunto competencia de la Alcaldía conforme a lo dispuesto en el art. 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local, elevo a su consideración, la siguiente

#### PROPOSATZEN DUT:

#### PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:

**LEHENENGOA.-** Euskara Arloko 2025eko dirulaguntza eskaerak aurkezteko epeak onartzea, zehaztutakoaren arabera.

**PRIMERO.-** Aprobar los plazos señalados para la presentación de solicitudes de subvenciones en materia de Euskera para 2025.

**BIGARRENA.-** Euskara Arloko 2025eko dirulaguntza eskaera hauek aurkezteko epeak argitaratzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez.

**SEGUNDO.-** Ordenar la publicación de estos plazos de presentación de solicitudes en las subvenciones del Área de Euskera para 2025 en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Proposamen horrekin ados egonda, eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua emandako ahalmenak baliatuta, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

Goian jasotako ebazpen-proposamena onestea eta bere horretan Ebazpen bihurtzea.

Udalaren kontu-hartzaileak (e)an fiskalizatu du proposamena, erreferentzia-zenbakiarekin, eta emaitza: .

Encontrándola conforme y en ejercicio de las facultades establecidas en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local,

**DISPONGO:**

Aprobar la propuesta de resolución transcrita, elevándola a Resolución, en sus propios términos.

La propuesta ha sido fiscalizada por la intervención municipal en fecha , con nº de referencia y con resultado .